

EUSKARA IKASTEKO MATRIKULAZIO KANPAINA ZABALIK HIRIKO EUSKALTEGI ETA ZENTRO HOMOLOGATUETAN

Xede bereziko taldeentzako egokitutako ikastaro berezituak ere eskainiko dira: merkatari eta ostalarientzat, langabeentzat, gazteentzat, gurasoentzat, erretiratuentzat eta etorkinentzat, besteak beste

Irailaren 1ean hasiko da langabeek doako ikastaroetan izena emateko epea

Donostiako Udalak, hiriko euskaltegiek eta zentro homologatuek euskara ikasteko deia egin diete donostiarrei. 2022-2023 ikasturtean euskara ikasi nahi dutenek izena emateko aukera dute irailetik aurrera hiriko euskaltegietan eta zentro homologatuetan. Hori gogoratzeko, dagoeneko sendotuta dagoen **#euskaldunizate** leloa duen kanpaina jarri dute martxan.

Jon Insaustik, Euskarako eta Kulturako zinegotzi ordezkariak eta euskaltegi eta zentro homologatuetako ordezkariak elkarrekin aurkeztu dute **#euskaldunizate** kanpaina. Jon Insaustik adierazi du kanpainaren leloak ezin hobeto jasotzen duela zabaldu nahi den mezua, *“eta horregatik erabili dugu aurreko urteetako lelo bera. #euskaldunizate hitz-jokoak euskalduntzeko modu ugari adierazten ditu, eta euskaraz eta gaztelaniaz du esanahia: euskaldun izatea, euskaraz, eta euskara ikasita euskalduntzea, gaztelaniaz”*.

Halaber, Euskarako eta Kulturako zinegotzi ordezkariak gaineratu du, *“aurten, Euskaraldiaren urtea izanik, bereziki egiten diegu dei donostiarrei euskarara hurbil daitezen eta hizkuntza ikas dezaten”*.

Komunikabideetan eta hiriko beste zenbait euskarritan presentzia izango duen arren, kanpainari bultzada berezia emango zaio mundu digitalean, bereziki sare sozialetan: hizkuntzen arteko jokoaren bidez bi hizkuntzetako hiztunei erreferentzia egitearekin batera, **#euskaldunizate** traolarekin sarean kokatu nahi da kanpaina.

Eskaintza zabala eta behar guztietara egokitua

Ikastaro eskaintza zabala dute euskaltegi eta zentro homologatuek. Alde batetik, ikasturte osoan zehar ematen diren euskara ikastaro arruntak eskaintzen dituzte edozein herritarren

Prensa Oharra

beharretara egokitzen diren ordutegiak: astean maiztasun eta ordu gutxiko ikastaroetatik hasi eta eguneko 3 eta 5 orduko ikastaro intentsiboetaraino.

Horrekin batera, autoikaskuntzako ikastaroak ematen jarraituko dute euskaltegiek. Online ikastaroak emateko programak dira, eta, kasu horietan, ikasle bakoitzak bere kasa antolatzen du egin beharreko lana, bakarka eta egokien irizten dion ordutegian. Horri gehitzen zaizkio zenbait tutoretza edo mintza-saio.

Ikastaro horiez gain, azpimarratzekoak dira xede berezia duten taldeentzako egokitutako ikastaroak. Talde desberdinen behar komunikatiboetara egokitutako ikastaroak dira hauek eta euskaltegiek eta Euskara Zerbitzuak elkarlanean antolatzen dituzte:

- **Merkatari eta ostalarientzako euskara ikastaroak:** hiriko merkatarien eta ostalarien elkarte eta federazioekin batera, aipatutako gremioetako profesionalentzat antolatzen diren ikastaro espezifikoak. Izena emateko epea: abuztuaren 29tik irailaren 16ra. Ikastaroak urrian hasiko dira.
- **Langabeentzako euskara ikastaroak:** langabezia dauden donostiarrei zuzendutako doako ikastaroak. Izena emateko epea: irailaren 1etik 23ra. Ikastaroa urriaren 5etik abenduaren 2ra izango da, egunero 3 orduz.
- **16-18 urteko gazteei zuzendutako ikastaroak:** batez ere uda partean eskaintzen diren ikastaroak, hezkuntza sistemaren ikasketa prozesuan euskara gaitasuna hobetu behar dutenentzako.
- **Gurasoentzako euskara ikastaroak:** ikastaro hauen helburua da, 2-12 urte bitarteko haurrak dituzten guraso erdaldunak euskarara hurbiltzea, eta guraso euskaldunei hizkuntza gaitasuna hobetzeko aukera ematea. Izena ikastetxeetan ematen da eta ikastaroak ikastetxean edo euskaltegian izan daitezke.
- **Erretiratuentzako euskara ikastaroak:** euskaltegian edo erretiratuen egoitzetan eskaintzen diren ikastaroak.
- **Etorkinentzako euskara ikastaroak, AISA ikastaroak:** euskara ikasteko oinarri-oinarrizko ikastaroak dira, euskararekin lehenengo harremana edukitzeko, ikasleari komunikaziorako oinarrizko baliabideak (agurrak, zenbakiak eta abar) eskaintzeko eta gure gizartea eta kultura hobeto ezagutzeko.

Eskaintza zabal honen inguruan Oihana Maritorea Legazpi 6 euskaltegi arduradunetako batek, euskaltegi eta zentro homologatu guztien izenean adierazi du *“gero eta behar handiagoa ikusten da gizartean xede desberdinetara egokitutako ikastaroak antolatzeko eta euskaltegiak ahalegin handia egiten ari dira egoera berrietara egokitu, eskaintza zabaldu eta ikasle bakoitzaren beharrei erantzuteko”*.

Prensa Oharra

2022-2023 ikasturterako dirulaguntzak eskatzeko epea eta baldintzak

2022-2023 ikasturtean euskara ikasi nahi dutenek Donostiako edozein euskaltegitan izena emateko aukera izango dute. **Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuak** ikastaro horietarako **dirulaguntza eskatzeko epea urriaren 1ean zabalduko du** eta ikasleek, ikasturtean zehar, ikastaroa hasten duten egunetik hilabeteko epea izango dute dirulaguntza eskatu ahal izateko.

Dirulaguntza eskaera online egiteko aukera izango dute herritarrek www.donostia.eus eta www.donostiaeuskaraz.eus web orrietan. Eta, era berean, Euskara Zerbitzuaren bulegoan (Konstituzio plaza, 2) edo Udalinforen bulegoetan (Easo, Arroka, Morlans eta Altza) ere eskatu ahal izango da.

Aurrez-aurreko ikastaroez gain, bestelako ikastaro motak ere lagunduko dira: barnetegiak, aurrez-aurreko telematikoak, autoikaskuntzakoak eta udakoak. Horiek diruz laguntzeko eskabidea ere ikastaroa hasten denetik 30 eguneko epean egin beharko da.

Dirulaguntza eskatzeko baldintzak ondokoak dira:

- 16 urtetik gorakoa izatea.
- Donostian erroldatuta egotea, edota egoitza soziala Donostian duen entitate edo enpresa batean lan egitea.

Dirulaguntza jasotzeko, berriz, baldintza hauek bete beharko dira:

- Euskaltegi edo zentro homologatu batean matrikulatzea.
- Eskabidea beteta ezarritako epean aurkeztea.
- Ikasturte amaieran, gutxienez, azpi-maila bat gainditzea.
- %75eko asistentzia egiaztatzea.

Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuak ematen dituen dirulaguntzak bateragarriak izango dira ikasle batek jaso ditzakeen beste zenbait dirulaguntzekin. Ikasle batek enpresa pribatu baten dirulaguntza jaso arren (lan egiten duen enpresa, esate baterako), Euskara Zerbitzuaren dirulaguntza ere eskatu ahal izango du, eta baita HABErena ere, betiere gainfinantzaketa ez dela izango ziurtatuta.

Prensa Oharra

Euskara Zerbitzuak 374.249 € bideratuko ditu dirulaguntzeara

Aurrekontuari dagokionez, 2022-2023 ikasturteko ikastaro arruntetarako 291.249 € bideratuko dira euskara ikasteko dirulaguntzearako (270.860 neguko ikastaroak diruz laguntzeko, eta 20.389 euro udako ikastaroetan aritu diren herritarrak laguntzeko). 2022-2023 ikasturterako dirulaguntza eskatzeko epea urriaren 1ean hasiko da.

Horrez gain, 38.000 euro bideratuko dira langabetuen ikastaroak antolatzeko. Ikastaro hauek 120 ordukoak dira eta %100ean laguntzen dira diruz, hau da, langabetuari dohainik ateratzen zaizkio.

Azkenik, 45.000 euro bideratzen ditu Udalak xede bereziko ikastaroak diruz laguntzeko. Ikastaro hauek 60 ordukoak dira eta ikasleak 60 € ordaintzen ditu.

2021-2022ko ikasturtean neguko ikastaro arruntetan (udako datuak oraindik ez dira jaso) aritu diren herritarren artean, **1090 lagunek jaso dute dirulaguntza**, eskaera egin dutenen %87,9. Gainditutako azpimaila bakoitzeko 217,15 € jasoko dituzte. Neguan ikasten aritutakoek irailean jasoko dute dirulaguntza. Hartara, ikasturte berrirako matrikula ordaintzeko baliagarri izango zaie jasotzen duten diru hori. Udan aritutakoek, berriz, abenduan jasoko dute dagokien dirulaguntza.

Donostian, 2022ko abuztuaren 29an



Prentsa Oharra

<u>XEDE BEREZIA DUTEN IKASTAROAK</u> (Diruz lagunduta dagoeneko)			
Ikastaroak	Izena emateko epea eta lekua	Ikastaroaren hasiera data	Denbora / Prezioa
<u>Merkatari eta ostalarientzako ikastaroak</u>	Abuztuaren 29tik irailaren 16ra Euskara Zerbitzuan, euskaltegietan edo zentro homologatutan	Urriaren hasiko dira	60 ordu / 60 euro
<u>Langabeentzako euskara ikastaroak</u>	Irailaren 1etik 23ra Euskara Zerbitzuan, euskaltegietan edo zentro homologatutan	Urriaren 5etik abenduaren 2ra, egunero 3 orduz	120 ordu / doan
<u>Gurasoentzako euskara ikastaroak</u>	Izen ematea: iraila. Ikastetxean, euskaltegian edo Euskara Zerbitzuan.	Urriaren	60 ordu / 60 euro
<u>Erretiratuentzako euskara ikastaroak</u>	Izen ematea: iraila. Erretiratuen etxean, euskaltegian edo Euskara Zerbitzuan.	Urriaren	60 ordu / 60 euro
<u>Etorkinentzako euskara ikastaroak, AISA ikastaroak</u>	Izen ematea: euskaltegian edo Euskara Zerbitzuan	Urriaren	60 ordu / 25 euro
<u>16-18 urteko gazteei zuzendutako ikastaroa</u>	Izen ematea: ikastetxean edo Euskara Zerbitzuan	Uda partean bereziki	60 ordu / 60 euro
<u>IKASTARO ARRUNTAK</u>			
<u>Aurrez aurrekoak</u>	Irailaren 1etik aurrera Donostiako edozein euskaltegi edo zentro homologatutan	Ikasturte osoan zehar eta/edo udan	Hainbat aukera / Prezioa aldatu egingo da aukeraren arabera (dirulaguntza Euskara Zerbitzuan eskatu behar da)
<u>Telematikoak</u>	Irailaren 1etik aurrera Donostiako edozein euskaltegi edo zentro homologatutan	Ikasturte osoan zehar eta/edo udan	Hainbat aukera / Prezioa aldatu egingo da aukeraren arabera (dirulaguntza Euskara Zerbitzuan eskatu behar da)